

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

EKONOMIA GARAPENAREN ETA LURRALDE OREKAREN SAILA

Diputatuen Kontseiluaren 60/2016 Foru Dekretua, irailaren 13koa, onartzen duena Arabako Foru Suhiltzaileak (Arabako Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) erakunde autonomoko lanpostu zerrenda

Oraintsu onartu dute Arabako Batzar Nagusiek uztailaren 13ko 8/2016 Foru Araua, Arabako Suhiltzaileak Erakunde Autonomoa (Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) eratzen duena.

Arauk zerbitzua kudeatzeko onartutako irudiak, hau da, erakunde autonomoarenak, zerbitzua zuzenean eskaintzea ahalbidetzen du. Era berean, izaera publikoa eta nortasun juridiko propioa aitortzen dizkio eta, nola haren barne araubidea hala jarduera, Zuzenbide Publikoak xedatzen du.

Alegia, antolaketa tekniko berezitua onartzen dio, gaian xedatzen den zerbitzu publikoa kudeatzeko eta eskaintzeko. Irudi hori urriaren 30eko 15/1987 Foru Arauak, jarduera ekonomikoaren eta deszentralizatutako foru zerbitzu publikoen kudeaketarenak, arautu zuen.

Bestalde, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak, Arabako Foru Aldundiaren antolaketa, funtzionamendu eta lege araubidearenak, 8.12 artikuluan xedatzen du Diputatuen Kontseiluari dagokiola onartzea Arabako Foru Aldundiaren eta haren erakunde autonomoen lanpostu zerrendak.

8/2016 Foru Arauaren hirugarren xedapen gehigarriak hasierako onarpena ematen die prebentzio, su itzaltze eta salbamendurako foru plana garatzeko beharrezkoak diren plazei (Diputatuen Kontseiluaren martxoaren 15eko 222/2005 Erabakiaren bidez onartu zen foru plan hori eta, ondoren, ekainaren 21eko 46/2011 Foru Dekretuaren bidez aldatu). Hain zuzen ere, laurogeita hemeretzi (99) dira plaza horiek.

Plaza horiez gain, 8/2016 Foru Arauaren hirugarren xedapen gehigarriak langile lan-kontratudun lanpostu gehiago sortzea ahalbidetzen du, baldin eta foru sektore publikoko beste erakunde batzuetan langile lan-kontratudun lanpostuak kentzen badira. Plaza berri horiek, ahal denetan behintzat, kendutako edo amortizatutako plazak betetzen zituzten langileak mugituz edo horiei berresleitzuz beteko dira.

2016ko uztailaren 20an, Arabako Lanak SA foru sozietate publikoaren akziodunek merkataritza sozietate hori desegitea onartu zuten. Horiek horrela, langile lan-kontratudun zortzi lanpostu sortzen dira.

Lanpostu horien ordainsariak kontuan dituzte Estatuko 2016ko aurrekontu Legearen 19. artikuluan jasotakoak, hau da, erkatzen diren bi aldien artean, nola langile kopuruan hala antzinasunean igoera ez da % 1 baino gehiago izango, 2015eko abenduaren 31n indarrean zirenak kontuan hartuta.

Hortaz, Arabako Foru Suhiltzaileak Erakunde Autonomoaren Batzordeak proposatuta, eta Diputatuen Kontseiluak gaur bertan egindako bilkuran aztertu ondoren, hau

XEDATZEN DUT

Lehenengoa. Onartzea Arabako Foru Suhiltzaileak (Arabako Prebentzio, Su Itzaltze eta Salbamendu Zerbitzua) Erakunde Autonomoaren lanpostu zerrenda, foru dekretu honi atxikia.

Bigarrena. Diputatuen Kontseiluak onartu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak foru dekretu honek, ALHAOn argitaratu ala ez gorabehera.

Vitoria-Gasteiz, 2016ko irailaren 13a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Diputatu nagusiorde eta Ekonomia Garapenaren eta Lurralde Orekaren Saileko diputatua

MARÍA PILAR GARCÍA DE SALAZAR OLANO

Lurralde Orekaren zuzendaria

IÑAKI GUILLERNA SAENZ

ARABAKO FORU SUHILTZAILEEN LPZ – LAN KONTRATUPEKO LANGILEEI GORDETAKO LANPOSTUAK

KODEA	LANPOSTUA:	HERRIA	TITULAZIOA	HE	DERR. DATA	BETETZEKO ERA	ORDAINSARIA	GIDABAIMENA
10.1.01 GIZA BALIABIDEEN ETA ADMINISTRAZIO KUDEAKETAREN ZERBITZUA								
1600 001	Administrataria (iraungitzeakoa)	Gasteiz	Batxiler titulua, titulu tekniko edo balioidea.	2		L	33.000,00	
1600 002	Administrataria (iraungitzeakoa)	Gasteiz	Batxiler titulua, titulu tekniko edo balioidea.	2		L	33.000,00	
1601 003	Administratari laguntzailea (iraungitzeakoa)	Gasteiz	DBHko gradua edo balioidea	2	16/10/01	L	25.000,00	
1602 004	Teknikari legelaria (iraungitzeakoa)	Gasteiz	Zuzenbideko lizentzia edo balioidea	3		L	53.000,00	B
1603 005	Mantentzeko koordinatzailea (iraungitzeakoa)	Gasteiz	Arkitekto teknikaria edo balioidea	3		L	42.000,00	B
1604 006	GIS kudeatzeko teknikaria (iraungitzeakoa)	Gasteiz	Topografiako ingeniari tekniko edo balioidea	3		L	42.000,00	B
1605 007	Eraikinetako prebentzio teknikaria (iraungitzeakoa)	Langraiz Oka	Goi mailako arkitektoa edo balioidea	3		L	53.000,00	B
1605 008	Eraikinetako prebentzio teknikaria (iraungitzeakoa)	Langraiz Oka	Goi mailako arkitektoa edo balioidea	3		L	53.000,00	B